

1

Mila urte ta bederatzirehun
larogei ta hamabostian,
"Lezo" maitea ikusten zaitut
oso egoera tristian,
horretarako nahiko arrazoi
badauka nere ustian,
bizi guztiko jarri nahi nuke
autobiaren azpian,
harriak negar egin lezake
asmo hori ikustian.

2

Autobia bai, autobia ez
hortxe dago sesioa,
herri guztiak agertua du
bere amorrazioa,
hamar xentimon probetxurik ez
eta kriston prezioa,
nere iritziz agintariak
galdu dute juizioa,
bestela ezin liteke
holako txikizioa.

3

Beti bezala hemen haundiak
txikia nahi du irentsi,
autobiaren kontuarekin
garbi dute erakutsi,
ez al da hobe lehengo autopista
peajerik gabe utzi?
Denak elkartu beharra dago
eta geureari eutsi,
damututzia alperrik baita
gero bihar edo etzi.

4

Agintariak zer asmo duten
hartu ezazute nota,
ingurunea guztiz suntsitu
ta bost sei baserri bota
beren patrikak bete ezker
besteak ez du inporta
derrigor egin beharra dago
autobia horri kontra
era hortako astakeririk
onartzerik ez dago eta.

5

Autopista horrek aspaldi hontan
peaje gabe behar zun,
agintariak baldin balute
behar den hainbeste zentzun,
bide bakarra daukagu hemen
ez badigute nahi entzun,
batu gaitezen "Lezo" "Pasaia"
Orereta ta Oiartzun,
eta merezi duten moduan
jentuza horri erantzun.

6

Tekniko hoiek ez dakit nola
atera duten karrera,
proiekto hori agertutzeko
herritarraren aurrera,
lehen bezalaxe gelditzen dira
Pasaia eta Herrera,
ahal dan azkarren kendu zazute
autopistako barrera,
ta begiratu arazorikan
sortzen den horti aurrera.

7

Batzuentzako izan liteke
milioi batzuek galtzea,
Donostitikan "Irun" arteko
peaje hori kentzea,
bainan mesede egin zazute
jaunak hori onartzea,
edo norbaitek sinisten al du
dela zerbait konpontzea
herri bateko arazo denak
besteari botatzea?

8

Etzazutela entzungor egin
tekniko ta agintari,
behingoz burutik kendu zazute
zuen amets gaito hori,
herri guztia aurka dagola
hemen garbi da nabari,
saia zaitetze gauza konpontzen
min eman gabe inori,
ez Oreretan dauzkan arazo
denak botata Lezori.

Martzelino Legorburu "Argiñane"